

## DONOSTIAKO MERKATARITZAREN ETA TURISMO HANDIKO EREMUAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Donostiako turismo handiko eremuari buruzko MOZIO hau aurkezten du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko urtarrilaren 16ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

### JUSTIFIKAZIOA

2014ko uztailaren 4an Madrilgo gobernuak 8/2014 Errege Dekretua argitaratu zuen, hazkunde, lehiakortasun eta eraginkortasunerako premiazko neurriak onartzeari buruzkoa. Aldaketa nagusien artean, merkataritza ordutegiak liberalizatzea. Honen ondorioz, Donostiako Udalak turismo handiko eremu bat aitortzera derrigortuta dago.

Horregatik, 2014an Merkataritzako Aholku Kontseiluaren bilera bat deitu zen puntu bakar hau jorrazteko. Bertan, Donostiako turismo handiko eremu gisa, ondorengo urterako, Parte Zaharra izendatu zen honako muga hauekin: San Juan kalea (bakoitien aldea, eta Bretxako merkataritza gunea kanpoan utzita), Bulebarra (bikoitien aldea), Urgull mendia eta Kaiko pasealekua. Gainera, uztaila eta abuztura mugatuta.

2015ean, ordea, Gobernu Batzordeak, eremua zabaltzeaz gain (Parte Zaharra osorik hartuta eta Zurriola pasealekua gehituz), denboraldia urte osora zabaldu zuen 2016rako; Tokiko Gobernu Batzordeak aldaketa hauek 2015eko azaroaren 10ean onartu zituen. Azaroaren 9an, egun bat lehenago, Merkataritzako Aholku Batzordea elkartu zen, eta zerrendan gai hau ez zen sartu ere egin; ez zen kasu bakarra izan, Garbera zabaltzeko asmoarekin prozedura bera erabili baitu Udal Gobernuak.

2016an ere Merkataritzako Aholku Batzordeak ez du gai hau jorratu, azken bilera uztailaren 6an izan zelako eta gai hau, normalean, urte bukaeran jorratzen delako: uztailaren 6koaz geroztik, beste bilerarik egin ez duenez Merkataritzako Aholku Batzordeak, ez du turismo handiko eremua landu ere egin (honek agerian uzten du, bestalde, zinegotzi-ordezkeriak ez duela oso gustuko aholku batzordearen bilerak egitea). Baina are gehiago, Gobernu Batzordeak ere ez du inongo onarpenik egin, nahiz eta komunikabideek onarpenaren eta, iazkoarekin alderatuta, aldaketa baten berri eman duten (onarpen hori sindikatuen babesarekin ere eman dela esan zuen zinegotzi-ordezkeriak komunikabideetan, nahiz eta gerora sindikatuek babes hori ukatu duten eta 2014ko erabakira bueltatzea eskatu duten publikoki).

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

Zinegotzi ordezkariak batzordean adierazitakoaren arabera, turismo handiko eremua aldatu ez denez, Gobernu Batzordeak ez du zertan onarpenik egin. Hori bai, Merkataritzaren Aholku Kontseiluaren inguruan ez zuen ezer esan.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIOA hau aurkezten du:

## MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio 2018ko turismo handiko eremua onartu baino lehen, Merkataritza Aholku Kontseilua dei dezala, gai hau gai ordenean sartuta, eragileek hura lantzeko aukera izan dezaten.

Donostian, 2017ko urtarrilaren 19an

15/  
2017-  
06-  
11-  
10655  
697  
01200  
13  
1528  
4007  
CIR/  
15K/

Josu Mirena Ruiz Martin  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**